

## mendia ▸ IBILBIDEAK



Axxorrigain, Itxinako gune karstikoaren iparraldeko zelataria. ALBERTO ERRAZI

# Itxinako labirintoa inguratzen

Ertz zorrotzetatik igarota, tontorrez tontor inguratuko dugu lehen begiradan ezinezkoa dirudien Itxina


## ALBERTO ERRAZI

Hainbeste edatea, hainbeste jatea, hainbeste ordu jesarrita egotea, horixe omen da euskaldunon betiko patua, are gehiago Eguberrietan. Bada, urte berriarekin batera zirrara indartsuak eskaintzen natorkizu irakurle. Gaurko proposamena berezia da oso, Euskal Herriko karst ederra eta basatienera iristeko ibiliko gara. Eskuak ez ezik, orientatzeko gaitasun handia beharko da. Eskalatzaileentzako horma zuzenak alboratuko ditugu, eta, sugeek bezala, troka sakonak saihestuko. Ekilibristen pare, ertz zorrotzetatik igaroko gara, eta tontorrez tontor inguratuko dugu ezinezkoa dirudien Itxina gune karstikoa. Gorbialdeko sabaia beste mendizale batzuei utziko diegu, gu ahuntzen pare ibiliko gara.


**ITXINA 'MUNDU MIRAN'.** Ez da lehen aldiz bertaratze gongibita luzatzen dizuedala. Duela urte batzuk, inprimategiko iratxoaren erruz edo, izenbururik gabeko artikulatu bate-

## Erreferentziak

- 00:00 Pagomakurra
- 00:40 Atxulaur arratea
- 01:20 Axxorrigain
- 01:45 Karamaieta
- 02:30 Betondegi
- 03:15 Altipitatz
- 03:50 Kargaleku lepoa
- 04:00 Arrabako atea
- 04:40 Pagomakurra



Desnibela 606 m  
Zailtasuna \*\*\*\*  
Luzera 11 km  
Denbora 4 ordu 40 min



an —Euskaldunon Egunkaria— 2000/04/21—, Manu Etxebarriaren aipamenak txertatu nitzizuen: Superlegor kobazulo ezagunean Anbotoko Señorearekin batera sorgin eta jentilak bizi ei zirela, hainbat artzain urrezalek altxor bilajotzen omen zutela... Idazki berean, nire amorrua ere erakutsi nien mendi federaziokoei gune karstikoan pintura erabili izanagatik; horretaz gain, ibilbidea barruko tontortxo batzuetatik ga-

raienera igotzean zetzan, hots, Atxulaur harratetik hasita, Txirikako Atxa, Itxina Erdiko Atxa eta Iturri Ederrako Puntatik igaro ondoren, Lekandara heltzea. Oraingoan, inguratu egingo dugu men-debaldeko gainetatik; hori bai, txangoa karstean ibiltzen dakienarentzat baino ez da izango, eta lainorik gabe egiteko, jakina.


**ATXULAU RTIK KARGALEKURA.** Abiapuntu ugari badira ere, geroke neke

gogoan hartuta, erosoena aukeratu dut: Areatzak frontoi aldamentetik 9 kilometroko errepidea ibilgailuz egingo dugu Pagomakurreraino. Aurrerantzeko txangoa zati bitan banatu daiteke: Pagomakurra-Axxorrigain (ohiko mendizaleentzat, harri piloak bidelagun) eta Axxorrigain-Arraba (eskarmentu handikoenentzat, laguntzarik ez). Pagomakurra aparkaleku alboko zutoinetik (PRB 40 Atxulaur /

## Arrabako sendategia

Ez zen gaurko ospitale handien modukoa, jakina. Hala ere, A. Medinabeitia medikuaren egitasmoa aintzat hartu zuten Zeanuri eta Orozkoko Udalek tuberkulosiak gogor kolpatzen zuten XIX. mendearen amaieran, eta Arraban 60 hektarea utzi zizkieten azpiegitura eraiki zezan. *Armintza eta Gorliz arteko labarrak inguratzen* artikuluan aipatzen nizen bezala (BERRIA-2007/06/15), Gorlizko sendategiak ere funtzio bera bete zuen A. Flemingek 1928an penizilina aurkitu arte. *Mendiakizene*ko bilduma zoragarria datu gehiago ere eskaintzen ditu G. Lopez Gereñukok, esate baterako, 1900. urtean zortzi txabola erabiltzen zirela gaixoei zerbitzua emateko: hamar oheko bakarra, Txabolazarra zeritzona, eta ohe biko Axpekoa, Eguzkitza, Illargia, Izarra, Kabia, Kaiola eta Txoritokia izenekoak. Eliza trinkoa ere altxatu zuten, harri lanezkoa, baina 1917rako sabaia jausia zuen. Gurutzi Arregiren arabera, Egiriñan kokatzen den Edurretako Andra Mariaren ermita sendategiko eliza gogoratzeko eraiki ei zen. Oraindik ikus daitezke hondakin batzuk Ganguren taldearen aterpetik gertu.

Superlegor) eutsiko diogu bideizidorrari. Izeidiaren itzalpean errekatxoa eta pista zeharkatu ondoren, aurreko horma eskuineko galtzadatik saihestuko dugu. Goiko larreetara helduta, aurrez aurre harkaitzaren zulora abiatuko gara artez. Atxulaur harratean ipar-mendebaldeantzat egin, gaineke buzoira jo, eta harri piloekin bat, gainez gain jarraituko. Ortutza (1.091) osteko Axxorrigain (1.095) amaituko da eroso ibiltzeko tartea. Beraz, troka eta amildiegi aldetik ibiltzeko gai ez denak atzera egin dezala, eta etorritako bidetik itzul dadila. Axxorrigainetik Karamaietaraino (1.086), Atxaragun lepotik, ertzertzari lotu beharrean, pixkatxo bat barruragotik ibiliko gara. Betondegirainoko tartea are nahasiagoa izango da, troka zein punta ugari topatzeagatik. Abaroko Axkanen (1.066) inguruetan geroago nagusituko den pagadiaren lehen zuhaitzekin egingo dugu topo, eta Altipitatzera (1.172) heltzeko, amildiegi aldameneko ertzerat itzuliko gara berriro. Ekialdeko larreetara jaitsi eta gaineke Kargaleku lepora helduta, azpiko Ganguren taldearen aterpera hurbilduko gara. Arrabatik Pagomakurrera bide zabalak eramango gaitu.



Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraldiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)

